

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2e22 Sorpresa Kiroldegian

Maila: A2

Helburua: Egingo den zerbait azaldu, eta ustekabea adierazteko zenbait esapide landu.

Funtzioak: Norberak ezustea adierazi eta beste bati emango zaion ustekabe planifikatu.

Azken ekintza: Binaka, euskaltegikoei ze sorpresa emango dieten erabaki. Taldearen aurrean azaldu sorpresa hori eta entzun dutenek sorpresa nori emango dioten asmatu.

Adierazpide linguistikoak:

- Aditza + nahi+ ukan / Aditza geroaldian. Aditza lehenaldian.
- Ustekabea adierazteko esapideak: *sorpresa galanta hartuko du, a zer sorpresa hartuko duen, ...*
- Denborazko adierazleak: *datarren urtean, laster, bihar,....*
- Aisialdiari lotutako oinarritzko hiztegia: *asteburua, afaria, mendia, parranda egin, afaldu....*

1- ENTZUN AURRETIK



1.1 Hau sorpresa!

Bideoan agertuko den egoeraren testuinguruan kokatzeko, binaka, hitz egin dezatela beren bizi-tartean hartu dituzten ustekabeei buruz. Hizpide emateko, hiru sorpresa-adibide emango dizkiegu eta elkarri kontatuko diote ze ustekabe jaso zuten. Ondoren, politena iruditu zaien ustekabea zein den adieraziko dute. Amaieran, atera diren sorpresa horiek zerrendatuko dituzte. Azken atazarako behar bada lagungarri egingo zaizkie.



1.2 Amaiaren sorpresa

Gero entzungo duten horretan arreta gehiago jar dezaten, Amaiari emango dioten ustekabearen inguruan hipotesiak eginarazi. Horretarako, erantzun posibleen artean bat aukeratuko dute edo buruan dutena idatziko. Lagungarri modura, komeni da audioaren zati bat ematea. Audio osoa entzuten dutenean (2.2 ariketan) aukera emango diegu hipotesiak egiaztatu eta erantzunak alderatzeko.

2- ENTZUN BITARTEAN



2.1 Amaiaren zain.

Audioaren lehen bi zatiak entzun ondoren ulermen orokorra ebaluatzeko egiak eta gezurrak identifikatuko dituzte. Pista modura transkripzioaren zati txiki bat irakurriko dute. Hemen erantzunak:

Josu ez da inoiz joan kiroldegira. **E**

June askotan joaten da kiroldegira, ikaragarri gustatzen zaiolako. **G**

Josuk eta bere lagunek Amaiarekin kiroldegira joan nahi dute. **G**

June aldageletara joan da Amaia han dagoen begiratzera. **E**

Amaiaren bila joan aurretik pintxo-potea egitera joan dira. **G**

Alexek uste du aldagelatik ateratzean, Amaia harrিতuta geratuko dela. **E**



2.2 Amaiaren erreakzioa

Audio osoa entzungo dute eta ondoren, hiru galderaren erantzun zuzenak aukeratuko. Adierazi, gehienbat Amaiak izandako erreakzioan erreparatu behar dutela. Ariketa borobiltzeko 1.2 ariketan

egindako hipotesia egiaztatzeko aukera emango diegu. Erantzunak alderatu ditzatela bikoteka. Ariketaren feedback modura, komeniko litzateke bideoaren transkripzioa ematea, bertan erantzunak azpimarratuta.

Ze plan ez dute egin gauerako? **Sagardotegira joango dira.**

Amaiak lagunak ikusi dituenean zer esan du? **Baina, zer egiten duzue hemen?**

Amaieran Amaiak errieta egin die lagunei. Zer esan die? **Kiroldegira, kirola egitera etorri behar dela.**

3- ENTZUN ONDOREN



2. 1 Hizkuntzari erreparatu

Atal honetan, ustekabea adierazteko bideoan atera diren zenbait esapidetan edo horien antzekoetan erreparatzeko eskatuko diegu. Horretarako, lehendabizi taulako azalpen eta adibideak irakurriko dituzte, eta ondoren, horiek nola funtzionatzen duten ikusteko, horietako batzuk elkarrizketa labur bateko hutsuneak betetzeko erabiliko dituzte. Elkarrizketa hori audioan entzundakoaren antzekoa dela adieraziko diegu. Elkarrizketa osatu ondoren, komeniko litzateke binaka horiek antzeztea, doinuera landuz.



2. 2 Sorpresa euskaltegian.

Orain lehen birpasatu dituzten egituren praktika askea bideratzeko unea da. Sorpresa hori euskaltegiko norbaiti emango diote, eta lehendabizi, binaka sorpresa planifikatzeko eskatuko diegu (nori emango dioten, noiz, ze sorpresa-mota...) Erabakitzen dutenean, antzeko elkarrizketa bat sortzeko eskatuko diegu.

Ikus eredia:

- ❖ *Ondoko gelakoei egingo diegu sorpresa. Afari berezia prestatuko diegu elkartean ezta?*
- ★ *Bai, eta gainera, musikarekin izango da. Landeri esango diogu "zorionak" abestuz gitarra jotzeko.*
- ❖ *Uf, a zer sorpresa hartuko duen!*
- ★ *Bai, eta gu hemen ikusita, harrিতa geratuko da.*

Ondoren, taldekoei bikote bakoitzak ze sorpresa pentsatu duten adieraziko die, baina norentzat izango den esan gabe. Entzuten dutenek sorpresa hori norentzat den asmatu beharko dute, eta eman diren zenbait datu taula batean jasoko dituzte (nori eta noiz emango dioten, zein sorpresa,) Bide batez, proposatu diren ustekabeei buruzko iritzia ematea eskatuko diegu.

MATERIAL OSAGARRIA

Antzeko edukiak edo egoerak lantzeko sekuentzia hauek interesgarriak izan daitezke:

- **Film laburra** (A2B17) Sekuentzia honetan zerbait egiteko asmoa adierazteko egiturak lantzen dira eta planak egiteko komunikazio-eginkizunari begira dago planteatuta.
- **A ze biharamuna** (A2EB05) Kexa eta harridura adierazteko zenbait harridurazko esapide lantzen dira.
- **Dena ondo antolatuta** (A2B02) Geroaldia lantzeko eta planen berri emateko egiturak lantzen dira. Azken atazan plan berriua proposatu behar dute.

TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Hemen dituzue garagardoak.

ALEX.— A ze sorpresa hartuko duen Amaiak aldageletatik ateratzen denean!

JOSU.— Bai. Ni behintzat ez naiz sekula etorri kiroldegira.

JUNE.— Ni bai. Berarekin etorri nintzen izena ematera. Baina alfertuta nabil eta ez naiz sekula etortzen.

JOSU.— Ederra marka!

JUNE.— Hala da, baina egun osoan lanean ibili eta gero, ez dut izaten batere gogorik kirola egiteko.

ALEX.— Ez naiz harritzen. Nik ere...

JOSU.— Aizue, ordubeteko saioa egiten du, ezta?

JUNE.— Bai, segituan atera behar du.

JOSU.— June, axola zaizu aldageletara sartzea, bertan dagoen ikusteko? Gu iritsi baino lehen joan bada...

ALEX.— Baina ez du jakin behar hemen gaudela. Disimuluz, ados?

JUNE.— Bai, bai. Tira, banoa.

ETENA

ALEX.— Orduan, gaur zer? Pintxo-potea egingo dugu, ezta?

JOSU.— Bai, sekulako giroa izaten da inguru hauetan.

ALEX.— Eta gero parranda. Ea bihar nor jaikitzen den fakultatera joateko.

JOSU.— Ni ez behintzat. Bihar jai!

JUNE.— Ilea lehortzen ari da; segituan aterako da.

JOSU.— Ondo. Sorpresa galanta hartuko du.

ALEX.— Bai, bai. Harrituta geratuko da gu hemen ikusita.

ETENA

AMAIA.— Baina, baina... zer egiten duzue hemen?

JOSU.— Zer egingo dugu, ba? Zure bila etorri gara kiroldegira, gurekin parrandara etortzeko.

AMAIA.— Mila esker!

JUNE.— Hala da, sekulakoa egingo dugu!

AMAIA.— Gaur ere parranda? Aizue, nik kirola egiten dut ondo egoteko eta ez gizentzeko; baina hainbeste parrandarekin...

ALEX.— Lasai, gaur suabe ibiliko gara eta.

JUNE.— Zer?, saio polita egin duzue?

AMAIA.— Bai, ordubete spinning-a egiten. Primeran. Baina ezin naiz ibili ere egin. Pasada ederra hartu dugu.

JOSU.— Lasai, besoetan eramango dugu Alexek eta nik gure printzesa.

AMAIA.— Mila esker, baina ez da hainbesterako.

JUNE.— Tira, ba, goazen.

AMAIA.— A, aizue, ikasi duzue bidea, ezta? Ba kiroldegira kirola egitera etortzen da jendea, ez garagardoa edatera. Ea noiz hasten zareten!

DENAK BATERA.- Bueno, bueno, bueno, bihar igual, egunen batean.

AMAIA.- Ai!